

EPAILEAK UDAL BATZARRAREN ERABAKIA BALIOGABE UTZI DU

Ertzantzak udaletxe aurrean geldiarazi zituen Ekain Ruizen errautsak

Zinkoeneatik udaletxera zeramazkitela Ertzantzak epailearen aginduaren berri eman eta sarrera galerazi egin zien. Jendea saiatu zen aurrera jarraitzen, baina, kargatu egin zuten. Familiak gaur zabalduko ditu errautsak Santa Barbaran.



Ibai Aristimuño eta Imanol Beroiz zinegotziak, ertzain burua epailearen aginduaren berri ematen ari zitzaizenean.

HERENEGUN Udal Batzarrak Ekain Ruizen hil-kapera udaletxean jartzea erabaki zuen. Atzo bertan, ordea, epaileak erabakia baliorik gabe utzi zuen. Udalak artean epailearen erabakiaren berri ofizialik ez bazuen ere, Ertzantzak gallerazi egin zuen errautsak udaletxean jartzea. Hiru aldiz, behintzat, kargatu zuen. Ondorioz, bi urgentzietara eraman behar izan zituzten, batek konortea galdu zuen, gainera..

HIL-KAPERA PLAZAN. Arratsaldeko lauetan jarri dute Ekain Ruizen hil-kapera udaletxe aurrean, herritarrek hernaniar gazteari azken agurra eman ziezaioten.

OMENALDIA TILOSETAN Senide, lagun, alkate, Gestora eta EHko ordezkari... eta

Tilosetako plaza bete jenderen omenaldia jaso zuen Ekain Ruizek. Ondoren, parte hartzaileen esanetan, aspaldian izan den manifestaldirik jendetsuena egin zen.

Unai Fano
(Ekainen Ruizen laguna)
“Gazteak dira arriskatzeko prest daudenak, eta arriskatzen duenak bakarrik irabaz dezake”

DENA ITXITA Lehen orduan okindegi eta denda batzuk zabalik bazeuden ere, behin hamarrak ezkerre ia dena itxita egon da, bai herri kaxkoan eta baita auzoetan ere.

REKONDOREN PRENTSA OHARRA EA-EAJ koalizioko bozemaileak prentsa oharra bidali zuen zenbait komunikabidetara.

Rekondok dienez, Ekain Ruizen heriotza sentitzen du eta senitartekoei doluminak ematen dizkie. Heriotz hau, ordea, “ETAko militantzia omentzeko erabiltzea” kritikatzeko du. Udal batzarrak erabakitakoari buruz, oharra hauxe dio: “Ez dago inongo logikarik ego justifikaziorik gorpuzkinak udaletxean jartzeko”.

“Ekain Ruizen heriotzak denok gogoetara bultzatu behar gintuzke” -dio Rekondok- “baina, batez ere, Ekain eta beste gazte asko irteerarik gabeko bidera, ETA-ra, zuzendu dituztenak.” □

Gaur ezingo da Atsegindegin kotxerik utzi

Aparkalekua asfaltatzen hasi behar dute. Ezeren okerrik ez dela, egun bateko kontua izango da.



Gaur aparkatzerakoan gidari askok nahiago luke motoa balu.

KASKOAREN bide-berritzeak bukatzeko, Atsegindegi asfaltatzen hasi dira gaur. Goizeko 8etarako kotxe guztiak bertatik kendu behar ziren.

BIHAR APARKA DAITEKE. Eguraldiak trabarik jartzen ez badu eta dena behar bezela badoa, lanak biharko bukatua behar du. □

■ PELOTA

Esnal eta Zubiagak irabazi egin diete Oiaga eta Alonsori

Aurreko txandan Oiaga izan zen irabazi zuena.

OIAGA eta Alonso 16 tantutan utzi zituzten, nahiz eta galtzaileek ez zuten errenditzeko asmorik erakutsi.

Oionen ikusle askorik ez bilduagatik, gogoz aritu ziren pelotariak nork dejada egin eta etsaia txokoa utziko. □

Hiru hernaniar atxilotu dituzte Sallen de Gallegon

Atzo Jon Garmendia ‘Txuria’, ‘Wilbo’ eta ‘Pitu’ hernaniarrak detenitu zituzten Huescan mendian izan eta etxera zetoze. Errepide kontrol batean gelditu eta Jaca-ko komisariara eraman zituzten. Oraingoz ez dugu beste berririk. □

IRAGARKI MERKEAK

Jatetxe batean, garbitasunerako emakume bat behar da. Kotxea beharrezkoa. Tel.: 943 55 64 81.

UDAKO MERKEALDIAK BUKATZEKO ZORIAN

Abuztuan gutxiago saldu da uztailean baino

Merkealdiak uztailean hasi eta abuztuan prezioak gehiago jeitsiagatik.

DENDARIEN ustez, arrazoi ezberdinengatik ez da abuztuko merkealdietan askorik saltzen: oportetan jendea kanpora doala, merkealdiko eskeintzan gero eta bariedade gutxiago gelditzen dela, edo jendeak hiriburu eta zentru komertzial haundietara jotzen duela... gauza da espero (edo nahi) adina ez dela saldu. Ihazko urtearekin konparatuta berdintsu edo gutxiago.

EROSLE JENDEA

Dendariak ezagutzen dute erosle jendeak ze erreakzio dituen merkealdietako kartel deigarrien aurrean: batzuk nahiago dute merke dauden 3 jertse eraman, gustatu zaien bakar bat baino. Beste batzuk ez dira merkealdietako apaletara hurbildu ere egiten, merkekeriak uxatuta. Halere, eta kuxkuxea-



Merkea eta ona aurkitzeko asko bilatu behar!

tzera doazanak kenduta, erosle beharrak eraginda, jenero jakin guztiak sartzen omen dira baten bila. □

'TXILLIDA-LEKU'REN INAUGURAZIOA IRAILEAN

Espainiako erregea Hernanira?

Aznar ere etortzekoa izan liteke; hala atera du egunkari batek. Txillidaren bulegoan eta Espainiako Gobernu ordetzan ez omen dakite ezer.


Datorren hilaren 15ean inauguratuko dute Txillidaren museoa Zabalgan. Zurrumurruek egiak badira, Juan Carlos I Espainiako erregea bertan izango da, eta Aznar bera ere bai Schröder Alemaniako Kantzillerrarekin.

"EZ DAKIGU EZER"

Kronika albistea egia edo gezurra den ziurtatzen ibili da: Txillida-Lekuren bulegoan berri hori ez dutela eurek zabaldu esanda utzi gaituzte. Gobernu ordetzan ez omen dutela ezer entzun eta Hernaniko Udalak, berriz, ez du inongo notifikazio ofizialik.

BALDUINO ERREGEA ALTZUETAN

Lehen ere badira Hernanira ezkutuan etorritako erregeak: Belgikako Balduino Altzuetan-



ko sagardoak probatua omen da Florentino Goikoetxea zenak gonbidatuta.. □

Juan Carlos I eta Schröder, Alemaniako Kantzillerra.

LEHIAKETA

BA AL DAKIZU NON DAGOEN?



KRONIKAK proban jarriko zaitu. Ia Hernani zenbat eza-gutzen duzun benetan! Guk, astelehenero, herriko leku edo gauza baten argazkia aterako dugu eta zuk zein tokitan dagoen asmatu.

■ **Erantzunak:** Kronikako buzoian utzi: Larramendi 11, behea. Izen-abizenak eta telefonoa jarri. **Aurreko astekoa:** Ugaldetxoko taberna aurreko plantano arbola..
■ **Epea:** astebete.

HERIOTZAK

Karmen Irazusta Iraola andrea

Atzo hil zen 67 urte zituela.

Francisco Vazquez Pavon jauna

Atzo hil zen 63 urte zituela

Hileta elizkizunak gaur **zazpitan** San Juan Bautista Parrokian.

A
G
E
N
D
A

ERGOBIKO FESTAK

⇒ 12:00 Idi-probak.
⇒ 17:00 Bertsolari eta trikitilariak.
⇒ 18:30 Herri kirolak:
-Zaldi-proba
-Harri-jasotzaileak
-Aizkolariak:
Olasagasti, Mindegia eta Agite Iren aurka.
⇒ 23:00-03:00
Dantzaldia: Kristina eta Amaiak joko dute.

TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093
► Udaltzaingoa: 943 333288
► DYA: 943464622
943 335533
► Anbulatorioa: 943 557750

FARMAZIAK

► Egunez: Sagastiberri Urbietta 7.
☎ 943 552941

► Gaez: Sagastiberri Urbietta 7
☎ 943 552941

ASTEARTEA

► Egunez: Irigoien Elkano, 2
☎ 943 552087

► Gaez: Irigoien Elkano, 2
☎ 943 552087

ASTEAZKENA

► Egunez: Gomez Nagusia, 15.
☎ 943 554892

► Egunez: Gomez Nagusia, 15.
☎ 943 554892